

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

#### **Arabako Lurralde Historikoko udaletako Gizarte-Zerbitzuak antolatzeko agiriak behin-behinean onartzea**

Udalbatzak, 2025eko abuztuaren 27an egindako ohiko bilkuran, Arabako Lurralde Historikoko udaletako gizarte-zerbitzuak antolatzeko agiri hauek behin-behinean onartzea erabaki zuen:

1. Eskumenak Eskuordetzeko Esparru Hitzarmena eta udal-eskumeneko Gizarte Zerbitzuak Kudeatzeko Gomendia.
2. Etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen udal-araudia.
3. Esku-hartze sozioedukatibo eta psikosozialerako zerbitzua arautzen duen udal-erregela-mendua.
4. Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua arautzen duen araudia.
5. Eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua arautzen duen udal araudia.
6. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxebizitzaren zerbitzua arautzen duen araudia.
7. Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanletik beherako udalerrietan adinekoentzako ostatu-zerbitzuari, eguneko arretari eta zerbitzu osagarriei buruzko udal-araudia.
8. Udal ordenantza, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa arautzen duena.
9. Gizarte-zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 65.2 artikuluetan eta Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 56. artikuluan xedatutakoa betez, espedienteak jendaurrean jartzen da 30 eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Dokumentuak fisikoki udaletxean kontsulta daitezke, edo modu elektronikoan, esteka honen bidez: (<https://udalenegoitza.araba.eus/arratzua-ubarrundia/web/tablonEdictos.do?opcion=0&entidad=ARRAZUA&idioma=3>).

Epe hori igaro eta alegaziorik aurkeztu ez bada, behin betiko onartutzat joko da.

Durana, 2025eko irailaren 9a

*Alkatea*

*M<sup>a</sup> BLANCA ANTÉPARA URIBE*